



BEHAKETA-JARDUERA: Koloreak eta ehundurak ilustratuz

Objektu- edo erreferentzia-irudietan forma orokorra eta xehetasunak behatzeaz gain, beste hainbat informazio ere erregistratu genezake. Izan ere, gure inguruko objektu eta izaki bizidunek badituzte bereizi egiten dituzten beste hainbat ezaugarri formaz gain; kolorea, usaina, ehundura edo testurak eta mugimendua, esaterako.

Jarduera honetan horietako batzuk identifikatu eta paperean adierazten saiatuko gara. Erreferentzia-objektu gisa, inguruko ornogabeen hegoei, kasu honetan intsektuenei, erreparatu diegu. Horretarako, ikasleei intsektu ezberdinen hegoen irudiak erakutsiko dizkiegu: tximeletenak, kakalardoena, eta abar.

Aukera izanez gero, intsektuak zuzenean beha daitezke ikasgelan.

- **KOLOREA:**

Ikasleei behatzen ari diren objektuaren kolore nagusiak identifikatzeko eskatuko zaie: gorria, laranja, berdea, urdina, eta abar.

Ondoren, euren dituzten margoen artean objektuaren kolorera gehien hurbiltzen den koloreak hautatu beharko dituzte. Kolorerik zehatzena lortze aldera, koloreak nahasten ere saia daitezke.

Kasu batzuetan intsektuen hegoak “gardenak” direla ohartuko dira, kasu horietan, ikasleei gardentasun hori irudikatzen saiatzeko eskatuko zaie.

- **TESTURAK EDO EHUNDURAK:**

Zaila izan arren, aurrean ditugun objektuen testurak paperean irudikatu daitezke. Lehenik, ikasleei margo ezberdinek sortzen dituzten testurak behatzeko eskatuko diegu.

Ondoren, margo eta teknika bakoitzarekin margotu genitzakeen testuren inguruan hausnartuko dugu. Zer material marratzu genezake argizariekin? Eta boligrafoekin?

Testura ezberdinak paperean marratzeko, ikasleek material ezberdinak probatu beharko dituzte, bai eta, ahal izanez gero, material bakoitza paper ezberdinetan ere.



GELAKO MATERIALAK

Eranskinetan erreferentzia-irudi batzuk aurkituko dituzu.

Ehunduren ariketa egiteko, nahikoak izan daitezke ikasleek estutxeetan izan ditzaketen materialak. Dena den, nahi izanez gero, argizariak, tenperak eta bestelako materialak ere erabil daitezke.

KONTUAN IZAN

- **HELBURUA**

Jarduera honen helburua behaketaren bidez erreferentzia-objektuen bestelako ezaugarri bereizgarrietan arreta jartzea da eta horiek paperean irudikatzeko teknika ezberdinak lantzea.

- **IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA**

- Esperimentazio-probak egitea.

-Material ezberdinekin probak egitea, kolore eta testuren erregistroa lortzeko.

*Kontuan izan ikasleei eskatzen zaiena, kolore eta testurak paperean adieraztea, oso zaila dela; ondorioz, irakasleok ez genieke eman beharko garrantzirik emaitzei. Izan ere, marratzia egitea objektu eta bizidunen bestelako ezaugarrietan arreta jartzeko aitzakia besterik ez da, ikasleak kontura daitezen koloreak eta testurak oso garrantzitsuak izan daitezkeela eta garrantzitsua dela horietan erreparatzea. Adibide gisa, intsektuek eta beste animalia batzuek euren koloreak erabiltzen dituzte gainerako animaliei arriskutsuak direla adierazteko edo baita bikotekidea bilatzeko ere. Testurek ere garrantzi handia izan dezakete; adibidez, erleen eta beste intsektu batzuen gorputz iletuak polena garraiatzeko balio du.